Elkartearen estatutu sozialen bigarren artikuluan xedatutakoarekin bat, erakunde honek helburu du Erretinosi Pigmentarioaren inguruan gizartea informatu eta sentsibilizatzea, sinergia oro ikerketa genetikoaren inguruan bilduz, gaixotasun honek eragindakoek osatzen duten kolektiboaren bizi-kalitate egokia erdietsi arte.

Xede hauen erdiespenerako, Elkarateak bere estatutuetan aurreikusten dituen iharduera ezberdinak egikaritzen ditu eta, besteak beste, jarraian aipatzen direnak:

- Gaitzaren inguruan ematen diren aurrerapausu mediku-zientifikoaren inguruan informatzea.
- Oftalmologo, genetista, zientzialari, ikerketa-talde, etabarrekin elkarlanean aritzea, beti ere Erretinosi Pigmentarioaren alorrean.
- Bai gaixotasunak eragindako baita berauen senide eta adiskideentzat ere izaera sozialeko iharduerak antolatzea.
- Antzeko helburuak dituzten bestelako erakunde edota erakundeekin hartu-emanak estutu.
- Erakunde nahiz publiko nahiz pribatuetatik baliabide ekonomikoak eskuratu.

## **3.- BAZKIDEAK**

Elkartearen estatutuekin bat bazkide izan daiteke, alde batetik, erakunde beraren xedeak bete nahi dituen eta, beste alde batetik, hurrengo baldintzetako bat betetzen duen edozein izaerako pertsona:

- Adin-nagusikoa edota adin-txikiko emantzipatua izateaz gain eskubideren baten egikaritzarako inolako legezko baldintzari loturik ez egotea ezta inolako ebazpen judizial irmoren arabera gaitasuna mugatua izatea ere.
- Emantzipaturik ez dagoen adin-txikikoaren kasuan, hamalau urte baino gehiago izatea eta bere gaitasun-eza ordezkatu behar duten pertsonen agiri akreditatu bidezko adostasuna izatea.
- Tutoretza- edota kuratoretza-pean daudenen gaitasun-gabezia osatu edo ordezkatu behar duten pertsonen agiri akreditatu bidezko adostasuna beharrezkoa da, ezin izango dira ez gobernu-organuaren kide ezta elkartearen ordezkari izan ere.

2016ko abenduaren 31ean Retinosis Gipuzkoa Begisarek 228 bazkide ditu, berauetako 129 emakumezkoak dira eta gainerako 100ak gizonezkoak.

#### **4.- JARDUEREN MEMORIA ETA ERAKUNDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK, BAITA BERAUEN ONURDUNAK ERE**

Horrela, elkarteak burutzen dituen ihardueren onuradun izango dira bai Erretinosi Pigmentarioaren gaixotasunak eragindako guztiak eta beraien senideak, baita gaitz honekin harremana duten zientziaren edozein arlotako profesionalak ere. Era berean, "Ikusmen Murriztua Dut" deritzon bereizgarriaren inguruko proiektuari esker onuradun-kopurua nabarmen areagotzen da, izan ere, ikusmen murriztuaren sentsibilizazioak berau pairatzen duten gizon-emakume guztiak onuratsen ditu zuzenean, gutxi gora-behera biztanleriaren %2a hain zuzen ere.

Iharduera gehienek duten onuradunen kolektiboa erabat zabala eta zehazgabea da, izan ere, gaitzaren dibulgazioa, bere zailtasunak, bere beharrak, ematen ari diren aurrerakuntzak, eragindakoez dituzten baliabideak etabar, Retinosis Gipuzkoa-ko bazkide diren edo ez aintzat hartu barik, era guztietako eragindako pertsona, gaixo, senide eta gainerakoak onuratsen dituzten egintzak dira.

Era berean, pertsona kopuru ahalik eta zabalenera iristeko asmoz beste elkarteekin hartu-eman franko izaten, gaixotasunaren sentsibilizazioaren inguruko ihardunaldiak ospatzen, paper eta bideo formatuan edizioak argitaratzen, hitzaldiak etabar antolatzen ditugu.

Jarraian 2016 urtean zehar gauzaturiko programak, hauek osatzen dituzten jarduerak eta berauetako bakoitzaren onuradunak zehazten dira:

##### **4.1.- 1. PROGRAMA: Elkartegintza:**

2016 urtean zehar erretinako distrofiak pairatzen dituzten pertsonen eta beraien senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten saio eta jarduera ugari antolatu ditugu. Zehazki:

- Erretinosi Pigmentarioak eragindako baita beraien senideek ere izan ditzaketen informazio-, aholku- eta babes-beharrei emaniko arreta osoa. Honetaz baliatuz, Erretinosi Pigmentarioak eragindako ikusmen-urritasunak dituzten pertsonen desberdintasunak gainditzen, bazterketa-egoerak ekiditea sustatzen, autonomia pertsonala garatzen, beraien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea dugu helburu. Horretarako, 3 alorretan aritu gara lanean: pertsona eta/edo familiari emaniko arreta eta babesa; taldeka emandako arreta eta erkidegoari eskainiriko arreta. Onuradunak: era zuzenean, bazkide izan edo ez, erretinako distrofiak dituzten pertsonak baita beraien senideak ere. Eta zeharka bada ere gizartea, izan ere, diagnostiko genetiko zehatz batek gaixotasuna hurrengo belaunaldietara ez transmititzea ahalbidetuko luke eta, hortaz, gizartetik desagertzea.
- Erakunde eta enpresa desberdinekin eta Erretinosi Pigmentarioaren ezagutza hedatzeko xedearekin bilera ugari antolatu ditugu.



Onuradunak: gizartea orokorrean.

- Bizkaiako lurraldean erretinosi pigmentarioak eta erretinari eragiten dioten bestelako gaixotasunak eragindako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea xede duen Retina Bizkaia Begisare elkarte berriaren sorkuntzaren sustapena eta elkarlana. Izen berdina ezezik, web orrialdea eta proiektuak ere partekatuko ditugu eta batez ere lan-filosofia.  
Onuradunak: Euskadin erretinari eragiten dioten gaixotasunak eragindakoen pertsonak, adituak, eta zeharka, gizartea orokorrean.
- Sortu berri den Retina Bizkaia Begisare, Es Retina, Retina Madrid, RETIMUR eta FARPE -Espainiako Erretinosi Pigmentarioaren Elkartearen Federakuntza- bezala, Erretinosi Pigmentarioaren inguruan lanean diharduten hainbat elkarterekin elkarlanean aritu gara.  
Onuradunak: zuzenean Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta euren inguruko senide eta lagunak, baita gaitzaren inguruan lan egiten duten adituak ere. Zeharka gizarte osoa, izan ere, elkarlanean zenbat eta lan gehiago egin eta gehiago ikertu, are eta azkarrago iritsiko dira aurrerapausuak eta lehenago erauziko da gaixotasuna.
- Urritasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten bestelako elkarteekin amankomunean ditugun proiektuetan elkarlanean aritu gara. Besteak beste, Retinosis Gipuzkoa Begisarek abian jarri eta bere bidea daraman "Ikusmen Murriztua Dut" proiektuan ikusmen-urritazunak dituzten pertsonen elkarte baita ikusmen murriztuarekin loturiko erakunde eta enpresa ugarirekin lanean dihardugu.
- Onuradunak: era zuzenaren ikusmen murriztua duten pertsonak (gutxi gora-behera biztanlegoaren %2a) eta, zeharka bada ere, gizartea orokorrean.
- Adituekin (oftalmologo, medikuntzako beste hainbat aditu, ikusmen murriztuan espezializaturiko optometristak, ikerlariak, genetistak, abokatuak, eta abar) hartu-eman eta hainbat proiektu ditugu amankomunean.  
Onuradunak: bazkide izan edo ez, Erretinosi Pigmentarioa eta erretinako bestelako gaitzek eragindako pertsonak eta beraien familia eta lagunak, baita, Retinosis Gipuzkoa Begisare ardatz izanik, Erretinosi Pigmentarioarekin loturiko arlo ezberdinetan aritzen diren adituak ere. Eta zeharka bada ere gizartea, izan ere, informatu eta aholkua eman diezaieketen adituez inguraturik baldin badaude Retinosis Gipuzkoa bezalako elkarteak, hauek egoera hobeago batean egongo dira gaixotasunaren balizko eramaile direnei aholku eman eta, horrela, bere ondorengoek gaitza pairatu edota eramatea sahiesteko neurriak hartzeko.
- Desgaitasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten elkarte ezberdinek antolaturiko ekitaldietan parte hartu dugu. 2016 urtean zehar hurrengo jardunaldiak nabarmen daitezke: Ospitale-segurtasunari buruzko IV. Jardunaldia Osakidetza antolaturik, 2016/02/24; Gaixotasun Arraroen

alde ospatu den Espainiako Itzulia harrera Gasteizen, 2016/06/03; "La inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual" liburuen aurkezpena, 2016/06/17; Begiris elkartearen antolatutako "Gipuzkoan aurrera begira" jardunaldia, 2016/06/18; Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legearen aurkezpena, 2016/06/27; Retina Bizkaia Begisare gure elkarte filialaren aurkezpena, 2016/11/05; FEDER-en Ohiz Kanpo Batzarra, 2016/11/25; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkartasun Sariaren Banaketa, 2016/11/30  
Onuradunak: gizarte orokorrean.

- Oro har, elkartearen kudeaketa hobetzearren bolondresen prestakuntza ardatz duten ikastaro eta hitzaldietan parte hartu dugu. Hain zuzen ere, Access Clinic Irekia Jardunaldia: "Herritarrek online parte hartzeko bidean, desgaitasunak oztopo?" 2016/04/13; Ikusmen Murriztua duten pertsonendako teknologia tailerra Begiris Elkartearen eskutik, 22/04/2016; Proiektu eta diru-laguntzen kudeaketa, DSS2016 Fundazioak antolatutako, 2016/06/09; Google for Nonprofits programari esker, Youtube, Analytics eta Apps ikasten, 2016/06/15-22-29; Enrique Pérez Monterok emaniko "Astronomia irisgarria" tailerrean parte hartzea, 2016/07/18  
Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta beraien gertukoak baita gizarte orokorrean, izan ere, elkartearen kudeaketa hobetzeko guztiontzat onuragarria suertatzen da.
- Edozein elkarteren kudeaketak galdatzen dituen berezko jardueren egikaritzea, besteak beste egintza-plana edo ihardueren memoriaren prestaketa, diru-laguntzen eskakizun-orriak, kontabilitatea, akten egikaritzea, datu-baseen eguneratzea, eta abar.  
Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere hurbilenekoak era zuzen batean eta zeharka, berriz, gizarte, izan ere, Gipuzkoako Erretinosi Pigmentarioaren inguruan Retinosis Gipuzkoa bezalako elkarte bat izatea denontzat onuragarria baita.

#### **4.2.- 2. PROGRAMA: Komunikazioa eta hedapena:**

Erretinosi Pigmentarioa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin lanean dihardugun alorrak dira, besteak beste, gaixotasuna eta bere sintomak ezagutara ematea, ikusmen-urritasunak berezko dituen zailtasunen inguruan gizarte orokorra sentsibilizatzea eta amesten dugun sendabidea erdiesteko lanean ikerketak duen berebiziko garrantziaren inguruan erakundeek kontzientzia hartzea.

Xede horrekin [www.begisare.org](http://www.begisare.org) web-orrialdea, *Twitter* eta *Facebook* sare-sozialak eta *YouTube*ko gure kataia propioa bezalako baliabideak ez ezik, interesgarria suerta dakigukeen informazioa jasotzen duten *newslettter*ak bidaltzen ditugu, BEGIRA urtekariaren argitarapena, kolektibo eta erakunde ezberdinekin elkarrizketak eta bilerak izaten ditugu eta abar luze bat.

Egunez-eguneko hedapen- eta sentsibilizazio-lanaz gain, noizbehinka guk geuk edota bestelako erakundeek antolaturiko sentsibilizazio-jardunaldi eta – kanpaina ezberdinetan parte hartzeak, alde batetik, publiko zabalago batetara iristeko aukera ematen digu eta, beste alde batetik, helarazi nahi dugun mezua modu biderkatzaile batetan hedatzea ahalbidetuko duten komunikabideen jarraipenaz baliatzeko aukera ematen digu.

2016 urtean zehazki hurrengo ekintzak antolatu ditugu:

## **1. “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria medio, ikusmen murrituaren inguruko sentsibilizazioa**

2016 urtean zehar, batetik, “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria eta bere esanahia eta, bestetik, ikusmen murriztua ezagutarazteko lanean eskura izan ditugun baliabide guztiak erabiltzen jarraitu dugu. Jarraian, burutu ditugun jarduerak zerrendatzen dira:

Jardunaldiak:

Ikusmenaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna, 2016/10/13, hainbat ekimen burutu genituen Gipuzkoa osoan: “Ikusmen Murriztua Dut – Nik Kontuan Dut” kanpainaren pegatina eta sare sozialetako mezuen bidez, hiritarren elkarlana erdietsi zen eta “Ikusmen Murriztua Dut – Kontuan izan” eta “Ikusmen Murriztua Dut –Hemen kontuan dugu” lelopean erakunde eta enpresen babesa lortu genuen.

Hitzaldi eta aurkezpenak:

- Bilbo, “Ikusmen Murriztua dut” ICQO-ren jardunaldietan 2016/02/19
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, “Ikusmen Murriztu Dut” bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Irunen 2016/02/29
- Nagusilan Intercentros-eko arduradunei emandako hitzaldia, 2016/03/09
- Legazpi, Ilinti merkataria elkarteari eginiko sentsibilizazio hitzaldia 2016/03/09
- Erretinosi Pigmentarioa eta Ikusmen Murriztuari buruzko klasea Bilbon medikuntzako ikasleei, 2016/03/21
- Ikusmen murriztuaren inguruko sentsibilizazio-jardunaldia DBHko ikasleekin, Donostian 2016/04/22
- Santander, Aspreh-ren VIII. Jardunaldietan parte-hartzea 2016/04/23
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, “Ikusmen Murriztu Dut” bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Legazpin, 2016/05/11
- Bilbo, “Ikusmen Murriztua dut” bereizgarria Hizkuntza Eskola Ofizialean 2016/05/16
- Bartzelona, “Avanzando hacia nuevas terapias” izeneko jardunaldian hitzaldia 2016/10/08

- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Sorluzen, 2016/10/13
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Erreterian, 2016/10/25
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Oñatin, 2016/12/13

#### Argitalpenak:

"Ikusmen Murriztua Dut" Gipuzkoako Ostalarien Elkartearen aldizkarian

Pegatinak, kartelak, liburuxkak, enarak eta irudi digitalak honako lekuetan:

- Gipuzkoako jatetxeetan Ostalatiza elkartearen eskutik
- Gipuzkoako saltokietan merkataritza elkartearen eskutik
- Gipuzkoako farmazietan sendagaigileen elkartearen eskutik
- Euskadiko optika-zentruetan optikoen erkidegoko elkargoaren eskutik
- Donostia Unibertsitate Ospitalean Komunikazio sailaren eskutik
- Gipuzkoako hainbat udal eraikinetan, kultur etxetan, polikiroldegietan eta edadetuen egoitzetan
- Gipuzkoako hainbat herrietan Nagusilanen eskutik
- Real Sociedad
- Laboral Kutxak dituen Donostialdeako bulegoetan
- Renferen Aldiriko tren eta geltokietan
- Gasteiz eta Bilboko tren geltokietako pantailetan, Euskotren
- Euskal Trenbide Sarearen eskutik geltoki ezberdinetan
- Estatu-mailan, optika-zentru eta oftalmologia-klinika desberdinetan
- Lurraldebus autobus guztietan
- Dbus autobus guztietan

#### Iragarkiak:

- El Diario Vasco-n *El Diario Vasco*ren adeitasunez
- *ProMedios* enpresaren adeitasunez, Donostiako autobus-geltokietan

#### Hedapenerako materiala:

- "Ikusmen Murriztua Dut" webgune berria, irisgarria eta hirueleduna (es-eu-in)
- "Ikusmen Murriztua dut" bideoa ingelesez
- "I have low vision" txapa berriak eta euskaraz eta gaztelaniaz ditugun txapen ekoizpen berria
- "Ikusmen Murriztua Dut" besoko berriak
- "Ikusmen Murriztua dut" bereizgarria eta "Nik kontuan dut" esaldia daramaten pegatinak
- "Ikusmen murriztua dut" bereizgarria eta "Hemen kontuan dugu" esaldia daraman pankarta.

- IMD enaren inprimaketa
- IMD kartelen inprimaketa

#### Komunikabideak:

Urtean zehar hainbat agerraldi izan ditugu prentsan, irratian eta telebistan eta nabarmenki ikusmenaren nazioarteko egunean (2016/10/13) eta gaixotasun arraroen egunean (2016/02/2).

Onuradun zuzenak: ikusmen murriztua duten gizon-emakumeak (gutxi gora-behera biztanlegoaren %2a). zeharkako onuradunak: gizartea orokorrean.

## 2. Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna:

2016/09/25an, igandea, Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Egunaren ospakizun berri bat izan genuen Gipuzkoako Foru Aldundiko arkupetan. Ekimen honen antolaketak hainbat helburu ditu, besteak beste, gaixotasuna eta bere sintomak ezagutara ematea, egunez egun itsutasunera garamatzen gaixotasun batekin bizitzeak eta ikusmen-urritasunak berezko dituen zailtasunen inguruan gizarte orokorra sentsibilizatzea eta amesten dugun sendabidea erdiesteko lanean ikerketak duen berebiziko garrantziaren inguruan kontzientzia hartzea. Horretarako *Legión 501 – Spanish Garrison*eko kideak izan genituen geurekin. *Star Wars – Guerra de las Galaxias*en jantzien inguruko nazioarteko erakunde honek "iluntasunaren aurkako borroka" lelopean ekimena girotu zuten. A Gritos Band txaranga eta speaker-a ere bertan izan genituen, "pintxo-pote" solidarioarekin gizarteratze puntua eman genion eta gure gaixotasunaren joku simulatzaileekin gizartea sentsibilizatzeko ahalegina egin genuen, artisau-lan solidarioak erakutsiz ikerkuntzarako fondoak lortzeko balio izan zuen, eta abar. Eguerdiko 12:30etan eragindako, senitarteko eta lagun guztiok elkarrekin argazki jendetsu bat atera genuen erretinosi pigmentarioa pairatzen dugun pertsonok bizi-kalitate hobea lortzeko borroka eta mugimendua ageriaz jarritz.

Ospakizunerako deialdi moduan eta sentsibilizazio eta difusio lanarekin jarraituz Donostiako autobusen errotulazioa egin zen *Retinosis Pigmentaria: la lucha contra el lado oscuro* lelopean. Egun bertan Dbus autobus guztiak deialdi kartela eraman zuten. Bestalde, sentsibilizazioarekin jarraituz informazio flierrak eta Star Wars-eko pertsonaien irudiak zituzten gaixotasunarekin erlazionaturiko txapak banatu ziren. Enara berriak ere prestatu genituen eta bazkide kolaboratzaile foiletoa berritu ezezik *Erretinosi Pigmentarioa-10 galdera ohikoenak* foileto berria atera genuen diagnostikoa jaso berri duen eragindakoari bereziki zuzenduta.

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere hurbileneakoak era zuzen batean eta zeharka, berriz, gizartea.

## 3. Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizuna

Pasaden otsailaren 29an ospatu zen Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna zela-eta, "*Bizitza tunel barrutik ikusita*" deritzon kanpaina bultzatu nahi izan

genuen. Funtsean, 2015ean abian jarri zen kanpaina honek gaitz hau ezagutera ematea du helburu. Bertan, eta bideo formatuan, Erretinosi Pigmentarioak eragindako pertsonak duten ikusmen motaren simulazio bat jaso ez ezik, hainbat gizon-emakumeek beren lekukotza pertsonalak ere eskaintzen dituzte. Azken finean, ezezaguna den gaixotasun honen ezagutza hedatzea lortu nahi da.

Bai sare-sozial baita autobus-geltokietan ere ikus daitekeen eta kanpainaren muina den irudi txundigarriak, gaixotasun hau pairatzen duten gizon-emakumeek dituzten zailtasunen eta balizko tratamendu baten bilaketan ikerketa bultzatzeak duen garrantziaren inguruan gizartea sentsibilizatu nahi du.

Egin ziren ekintza zehatzak hauexek izan ziren:

- Irunen egin zen sentsibilizazio hitzaldiaren antolaketa.
- Komunikabideetan izandako anpainaren islada.

Irratia: Cadena SER Irún, Bizkaia Irratia, Txingudi Radio, Doce.

Prensa: Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, 20 Minutos, Spain News, La Información, El Economista, El Diario.es, ABC

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere hurbileneakoak era zuzen batean eta zeharka, berriz, gizartea.

#### 4. Gaixotasunean azken aurrerakuntzak azaltzeko hitzaldien antolaketa:

-2016/01/22: Carmen Ayuso doktoreak, Fundación Jiménez Díez eta gaixotasun arraroen alorrean diharduen CIBEReko erreferentziako ikerlariak, "Las distrofias de la retina en 2016. Cuánto hemos avanzado" izenburudun hitzaldia eman zuen

-2016/03/12: Erretinosi Pigmentarioaren inguruan Biodonostia Ikerketa Institutua burutzen ari den ikerketa-proiektuaren arlo molekularren arduraduna den Javier Ruiz Ederra ikerlariak, bilera informatibo bat egin zuen ikerketa proiektuaren berri emateko.

-2016/11/19: Argus II erretinaren inplante berriari buruzko konferentzia jardunaldia. Ekitaldian ebakuntza egiten duen taldekide den Sarah Karam doktorea, Argus II duten pazienteen errehabilitatzailea den Verónica Andrea Pilotti de Siracusa eta Guadalupe Iglesias, erretinosi pigmentarioak itsutu ondoren Argus II protesi iraultzailea ezarri zaion pazientetako bat bertan izan ziren.

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere hurbileneakoak.

#### 5. Sentsibilizazio hitzaldien burutzea:

Kolektibo ezberdineri zuzenduriko hitzaldi eta solasaldiak antolatu eta burutu ditugu. Helburuak: Erretinosi pigmentarioa zer den eta era mailakatu batean desgaitzen duen eta itsutasunera garamatzen gaixotasuna dela kontuan izanda berorrek bizitzeak zer suposatzen duen azaltzea; sendabidearen bilaketan

ikerkuntzak duen garrantziaz ohartaraztea; Retinosis Gipuzkoa Begisareren zeregina azaltzea; Ikusmen Murriztua eta "Ikusmen Murriztua Dut" bereizgarriari buruzko azalpenak. Zehatz mehatz 2016. Urtean hitzaldi hauek burutu ditugu:

- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Irunen 2016/02/29
- Nagusilan Intercentros-eko arduradunei emandako hitzaldia, 2016/03/09
- Erretinosi Pigmentarioa eta Ikusmen Murriztuari buruzko klasea Bilbon medikuntzako ikasleei, 2016/03/21
- Ikusmen murriztuaren inguruko sentsibilizazio-jardunaldia DBHko ikasleekin, Donostian 2016/04/22
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Legazpin, 2016/05/11
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Soraluzen, 2016/10/13
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Erreterian, 2016/10/25
- Erretinosi Pigmentarioa, Ikusmen Urritasuna, "Ikusmen Murriztu Dut" bereizgarria eta elkartearen nondik norakoak barnebiltzen dituen hitzaldia Oñatin, 2016/12/13

Onuradunak: Gizartea oro har.

## 6. Erretinosi Pigmentarioa Kamiseten bitartez eginiko sentsibilizazioa

Erretinosi pigmentarioa zer den eta bere sintomak zeintzuk diren azaltzen duten 1000 kamiseta egin eta banatu ditugu. Helburua eragindako pertsonak ulertuak sentitzea da. Ezagutzen ez dena ezin da ulertu. Mota guztitako kirolariak berauen entrenamendu eta lehiaketetan erabiltzen ari dira. Halaber, argazkiak partekatzen dituzte bai berauen lagunekin eta bai gurekin, beraz keinu bakoitzaren zabalpena egin ahal izango dugu.

Bitartekoek antolaturiko jardunaldi hauetan ere parte hartu eta sentsibilizatu dugu:

- Boluntariotzaren II. Azoka "Ireki Begiak", 2016/04/20Día de la Fundación Real Sociedad, 12/06/2016 (organizado por Gipuzkoa Solidarioa)
- Real Sociedad Fundazioaren Egunean, 2016/06/12
- Sentsibilizazioa eta salmenta solidarioa Ordiziko Azokan, 2016/09/07
- Hondarribia Elkarlanean jardunaldi jendetsua eguraldiak lagundurik, 2016/10/02

- Solidaritatearen V. Foruma, 2016/10/22
- Sentsibilizazioa eta salmenta solidarioa Tolosako Azokan, 2016/12/17
- Sentsibilizazioa eta salmenta solidarioa Ordiziako Azokan, 2016/12/28

Sentsibilizazioko ekintzen onurdunak: gizartea oro har.

### **4.3.- 3. PROGRAMA: Eragindako eta senideei eskainiriko babes eta trebakuntza**

Erretinako distrofiak dituzten pertsona eta berauen senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten taldekako babes eta trebakuntza-jarduerak antolatu ditugu.

#### Coaching Tailerra, 2016/01/23-30 eta 2016/02/06

3 lan-saio hauetan parte hartu zutenek beraien inteligentzia landu ez ezik, beraien autoestimua berrindartzeko aukera izan zuten. Dibertigarriak suertatu ziren jolas ezberdinak medio, besteak beste Lego piezak eta koloretako margoak oinarri zituztenak, partaideek beraien zalantzak, beldurrak eta ilusioak giro atseginean gainerakoekin partekatzeko parada izan zuten.

Tailer hauek, bertara gerturatu ziren pertsonen egunerokotasunak aurkezten dizkien erronkei baikortasunez aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea izan zuten helburu. Horrela, norberaren segurtasuna eta gainerakoekin dugun komunikazioa sendotzea izan zuten ardatz jardunaldiok.

Onuradunak: erretinako distrofiak dituzten kideak diren gizon-emakumeak eta berauen senideak.

#### Sare-sozial eta interneten erabilera, 2016/05

Maiatzean zehar eta bazkideei bizitza errazteko berea duen konpromezuari eutsiz, "Sare-sozial eta interneten erabilera"-ri buruzko tailer bat antolatu genuen. Guztizitsuak edota ikusmen-urritasun larriak dituzten eta *Apple* gailuaren erabiltzaileak diren gizon-emakumeei zuzenduriko lansai ezberdinak izan ziren, izan ere, kolektibo honek teknologia hauek erabiltzerako orduan zailtasun handiagoak izaten dituzten arren, eguneroko bizitzaren hainbat jarduerari aurre egiteko benetan erabilgarria suerta daiteke.

Irisgarritasun aldetik marka estatubatuar honen aparagailuek duten *VoiceOver* aplikazioak eskaintzen duen aukera aparta izan da *Apple* etxearen gailuak aukeratu izanaren arrazoia eta, horrela, itsuak diren pertsona gehienek berauek erabiltzen dituzte. Tailer honetan parte hartu zutenak oso pozik geratu ziren sortu zituzten espektatibak argi eta gari gairitu baitzituzten. Beren kabuz *Twitter*, *Facebook* eta interneten aritzen ikasi zuten interakzio sozialerako aukerak hobetuz eta, era berean, tresna hauek zenbait kasutan erakar dezaketen bazterketa soziala sahiestuz.



Ikastaroa emateko ardura izan duen pertsonaren aukeraketa bera ere nabarmentzekoa da, izan ere, irisgarriak diren komunikazio- eta informazio-teknologiaren heziketan esperientzia duen pertsona izateaz gain, irisgarritasun-tresna hauek erabili ohi ditu bera ere itsua baita. Guzti honek, tailerra giro berezi bezain egokian ospatu izana ahalbidetu du.

Onuradunak: Retinosis Gipuzkoa Begisareko bazkide diren erretinako distrofiak dituzten gizon-emakumeak.

#### Retina Bizkaia Begisare aurkezpenaren jardunaldia

Azaroaren 5ean, Retina Bizkaia Begisarek bere aurkezpena zela-eta antolatu zuen jardunaldian talde bezala 25 pertsonak parte hartu genuen, hauetatik 9 gizonetzkoak eta 16 emakumezkoak izan ziren. Jarraian zehazten diren hitzaldiak partehartzailentzako heziketa eta laguntza izan ziren:

- "Ikusmen Urria": Zein baliabide ditugu?", Itxaso Herrera doktoreak emana, oftalmologian espezialista eta ICMG-n Ikusmen Urritasunaren saileko arduraduna da.
- "Erretinaren distrofia hereditarioak: oraina eta etorkizuna", José López Garrido doktoreak emana, oftalmologian espezialista eta Galdakao Ospitaleko oftalmologiako zerbitziburua da.
- "Diagnostikoa jaso dugua. Nola egin aurre egoera berriari?", Mónica Delicadok emana, erizaintzan diplomatua, Basurto Ospitaleko trasplante saileko koordinatzailea eta Laguntza Harremanean aditua da.

Onuradunak: erretinako distrofiak dituzten kideak diren gizon-emakumeak eta berauen senideak.

#### **4.4.- 4. PROGRAMA: Kontseilu genetikoa, aholkularitza eta heziketa:**

BioDonostia Institutua Erretinosi Pigmentarioaren inguruan burutzen ari den ikerketa-proiektuari ekonomia eta kudeaketa aldetik eskainiriko babesa:

Onuradun zuzenak: Gipuzkoan Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere familia-muina (jaraunspenezko gaixotasuna izanik bikote eta ondorengoak). Zeharka bada ere proiektua onuragarria da gizarte osoarentzat, izan ere, diagnostiko genetiko zuzen batek etorkizuneko belaunaldietatik gaixotasuna eta beronen eramaileak erazteak erakar lezake. Gainera, ikerketaren bidetik eragindakoentzat sendabide bat erdiesten baldin bada gizarte osoa onuratuko da.

Erretinosi Pigmentarioarekin nolabaiteko lotura zuzen edota zeharkakoa duten jardunaldietan izan gara:

- Euskadin Gaixotasun Arraroen inguruan egindako V. Jardunaldi Zientifikoa, 2016/03/05
- ASPREHek Santanderren ospatu dituen VIII. Jardunaldiak, 2016/04/22
- Fundación Jiménez Diazek antolaturik Ali Doktoreak terapia genikoari buruz hitzaldia, 2016/06/21

- FARPE-FUNDALUCE Ikerkuntza Jardunaldiak, 2016/10/22
- Retina Bizkaia Begisare gure elkarte filialaren aurkezpena, 2016/11/05

Onuradunak: erretinaren distrofiak eragindako pertsonak eta senitartekoak.

Gure gaitzaren, desgaitsunaren eta menpekotasunaren inguruko zalantzak argitu, iritziak trukatu, aholkuak jaso, eta abar egiteko asmoz, Aholku Batzordearekin hartu-emanak izan ditugu.

Onuradunak: alde batetik, bazkide izan edo ez Erretinosi Pigmentarioak eragindako guztiak baita beraien familia eta lagun-taldea ere eta, beste alde batetik, Retinosis Gipuzkoa Begisare topagune gisa erabil dezaketen Erretinosi Pigmentarioaren alor ezberdinetako adituak. Zeharka gizartea orokorrean, izan ere, Retinosis Gipuzkoa Begisare bezalako elkarteak berauek informa eta aholka ditzaketen adituez inguratuz gero, gaixotasunaren eramailea izan daitekeen edozeini aholku emateko egoera hobea batean aurkituko dira eta, beraz, hauen ondorengoak gaitza nozi edota eraman ez dezaten beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko dituzte.

#### **4.5.- 5. PROGRAMA : Giza-kultura eta kirol aisialdia:**

Giza-kultura eta kirol aisialdiko jardueren antolaketa medio, eragindako pertsona eta beraien gertuenekoei taldekako arreta.

Onuradunak: Retinosis Gipuzkoa Begisareko bazkideak baita beraien senide eta ingurukoak ere.

Jarduera eta partehartzaileak:

Erroma garaiko aztarnak eta artisau-garagardotegira txangoa, 2016/05/28

Maiatzaren 28an, larunbata, 21 bazkide eta lagun, 8 gizonezko eta 13 emakumezko, Irunera joan ginen oraingo honetan Oiasso Museo Erromatarra eta artisau-garagardoa ekoizten duen Bidassoa Basque Brewery ezagutzeko asmoz. Partehartzaileek sorturiko giro aparta izan zuen jardunaldi atsegin honek kultura eta gastronomia uztartu zituen.

Añanako Gatzetara txangoa, 2016/07/16

Uztailaren 16ean, larunbata, 11 gizonezko eta 17 emakumezko, hau da, 28 bazkide eta lagun joan ginen Arabara, Añanako Gatz Harana ezagutzera. Gatzagetatik ibilbide gidatu bat eginez lekuaren, bere garrantziaren eta beraien leheneratzeko eta balioesteko prozesuaren irudi orokorra jaso ahal izan genuen. Añanako Gatz Harana 6.500 urtetik gorako gatzaren paisaia kultural eta naturala da, berriz ere iraunkorra izan dadin leheneratzeko prozesu bete-betean dagoena. Bisitaldiak gatzagen historia, arkitektura, arkeologia eta bioaniztasuna

ezagutzeko, Añanako Gatza eurek ekoitzi eta dastatzeko; eta ur gaziaren eragin terapeutikoen onura jasotzeko.

Gabonetako ospakizuna, 2016/12/22

Pasaden abenduaren 22an, 12 gizonezko eta 20 emakumezko, hau da, 32 bazkide eta lagun elkartu ginen urteari amaiera emateko. Ni Neu jatetxean janaurreko batekin hasi eta berehala joan ginen Kurasaaleko Auditoriora José Corbacho komikoa eta Sole Giménez abeslaria entzutera. Urte berria iristear dagoela ospatzeko modu bikaina.

## 5.-MEMORIA EKONOMIKOA

### EGINDAKO GASTUA PROGRAMATAN ELKARTURIK

| <b><u>2016eko GASTUAK GUZTIRA</u></b>       | <b><u>80,090.39</u></b> |
|---|-------------------------|
| <b>ELKARTE MUGIMENDUA</b>                   | <b>10,926.24</b>        |
| ERANTZUNKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAK            | 621.77                  |
| BANKU ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK              | 203.2                   |
| HORNIDURAK ETA MANTENIMENDUA                | 1168.7                  |
| ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAK           | 3440.25                 |
| BESTE GASTU TXIKIAK                         | 132                     |
| POSTA ETA MEZULARITZA                       | 1912.25                 |
| BULEGOKO MATERIALA                          | 1910.66                 |
| DESPLAZAMENDUAK                             | 1424.41                 |
| AMORTIZAZIOA                                | 113                     |
| <b>KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA</b>            | <b>38,959.29</b>        |
| HEDAPENA/PROPAGANDA                         | 15,735.86               |
| WEB ORRIALDEA                               | 894.19                  |
| BEGIRA ALDIZKARIA                           | 3,503.26                |
| IKUSMEN MURRIZTUA DUT BEREIZGARRIA          | 15,722.52               |
| HITZALDIEN ANTOLAKETA                       | 3,103.46                |
| <b>LAGUNTZA ETA HEZIKETA SAIOAK</b>         | <b>1,143.51</b>         |
| COACHING BITARTEKO LAGUNTZA                 | 397.15                  |
| FORMAKUNTZA                                 | 746.36                  |
| <b>GENETIKA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA</b> | <b>23,349.46</b>        |
| BIODONOSTIA                                 | 20,000.00               |
| HITZALDIETARA JOATEA ETA BESTEAK            | 2,065.80                |
| AHOLKULARITZA-BATZORDEA                     | 1,283.66                |
| <b>AISIALDIA</b>                            | <b>5,711.89</b>         |
| GIZA KULTURA ETA KIROL AISIALDIA            | 5,711.89                |

## DIRU-SARRERAK PROGRAMATAN ELKARTURIK

**2016eko DIRU-SARRERAK GUZTIRA:                      80089.31**

|                           |                 |
|---------------------------|-----------------|
| <b>ELKARTE MUGIMENDUA</b> | <b>10926.24</b> |
| Gipuzkoako Foru Aldundia  | 5260            |
| Udaletxeak                | 2600            |
| Erakunde Pribatuak        | 2066.24         |
| Kideen Ekarpinak          | 1000            |

|                                  |                 |
|----------------------------------|-----------------|
| <b>KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA</b> | <b>38958.21</b> |
| Gipuzkoako Foru Aldundia         | 6311            |
| Eusko Jaurlaritza                | 4570.32         |
| Udaletxeak                       | 7445.5          |
| Erakunde Pribatuak               | 17997.8         |
| Erabiltzaileen Ekarpinak         | 1662.6          |
| Kideen Ekarpinak                 | 970.99          |

|                                     |                |
|-------------------------------------|----------------|
| <b>LAGUNTZA ETA HEZIKETA SAIOAK</b> | <b>1143.51</b> |
| Gipuzkoako Foru Aldundia            | 500            |
| Udaletxeak                          | 643.51         |

|  |                 |
|--|-----------------|
| <b>KONTSEILU GENETIKOA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA</b> | <b>23349.46</b> |
| Gipuzkoako Foru Aldundia                               | 800             |
| Udaletxeak   | 200             |
| Erakunde Pribatuak                                     | 2135.96         |
| Kideen Ekarpinak                                       | 4409.01         |
| Erabiltzaileen Ekarpinak                               | 500             |
| Dohaintzak   | 6031.49         |
| Baliabideak eskuratzeko ekintzak                       | 9109.5          |
| Finantza diru-sarrerak                                 | 163.5           |

|   |                |
|---|----------------|
| <b>GIZA-KULTURA ETA KIROL AISIALDIA</b> | <b>5711.89</b> |
| Gipuzkoako Foru Aldundia                | 2500           |
| Udaletxeak                              | 34.59          |
| Erabiltzaileen Ekarpinak                | 3177.3         |

## **6.- EMAITZEN EBALUAKETA OROKORRA**

Helburuen erdiespena, onuradunen asetze eta kalitate-mailari so eginez gero, 2016 urtean zehar Retinosis Gipuzkoa Begisarek buruturiko jardueren ebaluaketa egiterako orduan, urtea arrakastatsua izan dela kontsidera dezakegu. Izan ere, urte hasieran onarturiko Egintza-Planean aurreikusi ziren ekimenetako asko aurrera eramán ahal izan ditugu eta, era berean, berauetan izandako partehartze- baita asetze-maila ere altuak izan dira.

Elkarte Mugimenduari dagokionean, kudeaketa berak dakartzan ohiko eginbeharrez gain, Erretinosi Pigmentarioak zein bestelako ikusmen-gaixotasunek erakarritako ikusmen-urritasun larria duten pertsoneri babesá eta aholku eman diegu, bestelako elkarteekin elkarlanean proiektu amankomunak abian jarri ditugu, ekitaldi solidario ezberdinetan parte hartu dugu, eta elkartearen kudeaketaren hobetzea xede izanik trebakuntza- eta heziketa-ikastaro ugaritan izan gara.

Komunikazioa eta Hedapena programari dagokionez, Gaixotasuna Arraroen Eguna, Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna eta Ikusmenaren Nazioarteko Eguna medio antolaturiko dibulgaziozko-kanpainen bitartez gizartea sentsibilizatzeko genuen helburua erdietsi dugu, izan ere, ekitaldietan partaidetza-maila altua izateaz gain, bai Gipuzkoa baita Euskadin ere hedapen nagusienekoak diren komunikabideetan islada izan du gure ekimenak. Bestalde, "Ikusmen Murriztua Duta" bereizgarriaren proiektuari bultzada handia eman diegu eskura izan ditugun baliabideekin bere ezagutza zabalduz ez soilik Gipuzkoan, baizik eta Estatu osoan zehar. Bestalde, hitzaldi, web-orrialde eta sare-sozialen eguneratze, BEGIRA buletinaren argitarapena, eta abarrekin eman diren azken aurrerapausuen inguruan gizartea oro har eta bereziki eragindakoak informatu ditugu.

Gaixoei babesá eskaini eta neurri batean trebatzeko gure konpromezuari dagokionean, batetik, coaching tailerraren bitartez bazkideei babes psikologikoa eskaintzen jarraitu dugu eta, bestetik, eragindako baita bere gertukoenei ere zuzenduriko ikastaro eta tailerrak antolatu ditugu ondorengo hilabetetan ere.

Kontseilu Genetiko, Aholkularitza eta Heziketaren alorrean, ordea, gure Lurralde Historikoan maiztasun handienaz ematen diren geneak zeintzuk diren zehaztu eta berauekin ikertzen hasteko helburuarekin BioDonostia Ikerketa Institutuak burutzen duen Erretinosi Pigmentarioaren inguruko Proiektua ekonomikoki eta gure lanarekin bultzatzen jarraitu dugu. Diru-iturriak erdiestearren arrakasta handia erdietsi duten ekimen berriak abian jarri ditugu eta, horiei esker, proiektua bultzatzeko asmoz egin dugu ekarpena benetan esanguratsua izan da.

Giza-Kultura eta Kirol Aisialdiari dagokionean, azkenik, antolatu ditugun jardueren bitartez bai gaixo baita beraien senideek ere, gaixotasun eta bere ondorioen inguruan lasai hitz egiteko giro atsegina sortzeko aukera izan dugu. Erdietsi ditugun partaidetza- eta asetze-mailak oso altuak izan dira.

## **7.- RETINOSIS GIPIZKOA BEGISAREK ESKURA DITUEN BALIABIDE PERTSONALAK**

Retinosis Gipuzkoa Begisare Elkartek kontrataturiko langilerik ez izan arren, neurri handiago edo txikiago batean, elkartearen eguneroko bizitzan eta proiektuen gauzapenean inolako ordainsaririk gabe lan egiten eta laguntzen duten 80 bolondres ditu.

Elkartek dituen proiektuen kudeatzaile eta sustatzaile nagusiak jarraian aipatzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideak dira:

- Itziar González Lorenzo; Presidente.
- Markel Etxabeguren Leanizbarrutia; Presidenteordea.
- Amaia Gereñu Muxika; Idazkaria.
- Hilario Colina López; Diruzaina.
- Ramón Urra Erauskin; Bokala.
- Ana Aguirrezabala Esnal; Bokala.
- Ana Oyarbide Esnaola; Bokala.
- Javier García Sánchez; Bokala.

Burutzen dituzten funtzioen trukean kide hauei ez zaie inolako ordainsaririk ematen, izan ere, Euskadiko Elkartearen, ekainaren 22ko, 7/2007 Legearen 19. artikuluan xedatutakoarekin bat, Elkartearen Estatutu Sozialetan ez da horrelako aukerarik aurreikusten.

## **8.- RETINOSIS GIPIZKOA BEGISAREK ESKURA DITUEN BALIABIDE MATERIALAK**

- ONCEk utzitako bulegoa.
- Ikusmen murriztua duten eta/edoitsuak diren pertsonentzat egokituriko ordenagailuak.
- *Smartphone* irisgarria, ikusmen murriztua duten eta/edoitsuak diren pertsonentzat
- iPad Tablet irisgarria, ikusmen murriztua duten eta/edoitsuak diren pertsonentzat
- Telelupa (ikusmen murrizturako laguntza).
- Braille impresora.
- *Perkins* (brailleen idazteko makina).